

## **EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK**

1990-VII-27

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioko jauregian, 1990eko uztailaren 27an egin dute hileroko batzarrea euskaltzain osoek, goizeko hamar t'erdietan. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, J. San Martin, I. Sarasola, L. Villasante eta P. Zabaleta, euskaltzainak; R. Badiola Argitalpen arduraduna eta J.J. Zearreta Ekonomi eragile, urgazleak.

E. Larre, Tx. Peillen, eta P. Salaburu jaunek, ezin etorria adierazi dute.

Ekaineko batzar-agiria onartu da.

Bedita Larrakoetxea euskaltzain ohorezkoaren hil-berria eman du Euskaltzainburuak. J.A. Arana Martija jaunak egingo du arratsaldeko batzarrean haren lan eta merezimenduen aipamena.

### **Euskaltzaingaiaren aurkezpena**

Arautegiak dioen bi hilabeteko epea buruturik, gaur amaitzen da Hiriart-Urruty zenaren hutsunea betetzeko hautagaien aurkezpen epea. Beñat Oyharçabal izan da proposatu den bakarra, J.L. Davant, J. Haritschelhar eta P. Altuna euskaltzainek izenpetu dutelarik merezimenduen zerrendarekin batera hautagaiaren izendapen eskaria.

Udako oporraldia dela eta abuztuan bilduko ez delarik Euskaltzaindia, iraileko batzarrean egingo da legezko bozketa.

### **Letra larrien erabilera**

Maiatzeko batzarrean J.A. Arana Martijak batzordeño bereziaren izenean irakurritako txostenean, maiuskula eta minuskulei buruz, hizkuntza desberdineta-ko joerak jasotzen ziren. Hilabeteko epea eman zen orduan oharrak igortzeko eta Aralarko Jardunaldietara idatziz ekarriak bi izan ziren, P. Salaburu eta L. Villa-

santerrenak alegia, baina ez zen eztabaidatzeko astirik izan. Horregatik, eguneko gaietan hau da lehen tokian iragarritakoa.

P. Salabururen proposamena hartu da eztabaiden oinarri eta arazoa sortu duten letra hauen euskal izena finkatzea izan da lehen pundua. Maiuskula eta minuskula hitzak baztertu gabe, noski, letra larriak eta letra xeheak esaten da batzutan. Handitasunaren eta garrantzi itzaleko gertakizunen adierazpena ere baduela *larri* hitzak, esan da, eta horren ordez *nagusi* hitza aipatu da, minuskula, letra *arrunta* izango litzatekeelarik. Bien alde onak eta txarrak aipatu ondoren, esaten hasia zen moduan, *letra larria* eta *letra xehea* onartzea erabaki du gehiengoak.

Esandako oharren zerrenda punduz-pundu aztertzen hasi dira gero batzartuak, baina arau orokor eta xume baten bidez azalpena egitea hobe izango delakoan, beste bide bat hartu du eztabaidak. Eskuarteko izkribua batzarrean banatu da eta ez da, beraz, aurrez ikusteko biderik izan. Hori dela eta, batzordeñoari laburpenaren eredu bat prestatzea eskatu zaio, orrazketak beste bilera batean egin eta azken onarpena emateko.

### **Diruzaintza**

1991ko aurrekontuak aurkeztu ditu J.A. Arana Martijak. Atalez-atal zehazturik zeudenez banatutako orrietan, puntu bereziak bakarrik aipatu dira. Besteak beste, batzordeen bileretako ostatu gastuak garrantzitsuak direla, esan du, eta oso desberdinak batzutarik besteetara. Nolabaiteko oreka bat sortzeko asmoz, batzordekideei 2.500 pta. ordiantzea proposatu du, bilerako dietekin batera, gero bakoitzak nahi duen otordua egin dezan bere kontura. Euskaltzaindiko bilkura orokorretan, hala nola hileroko batzarre, Jardunaldi eta ekintza berezietan, diruzaintzak ordainduko du batzartuen bazkaria. Neurria ongi ikusia izan da, eta horrela onartu da.

Datorren urteko aurrekontua bere orokortasunean urteko igoera baino zerbait gorago gertatu da, Nazioarteko Jardunaldiak ere hor daudela kontutan izanik, batez ere. Agintariekin eztabaidatzean ikusiko da zenbatetaraino onargarria den, ala murrizketaren bat beharko duen. Dagoen-dagoenean onartzen bada, datorren urteko asmo guztiak ongi bete daitezkeela, uste du diruzainak.

### **Lizarrako Jardunaldiak**

Datorren irailean Lizarran egitekoak diren Toponimiako Jardunaldiez mintzatu da E. Knörr, Onomastika batzordeburua. Txostenen eta hitzaldien tituluak eta laburpenak eskatu zaizkie egileei, bilduma eskaintzeko asmoz hastetik partaide guztiei. Mapen III. erakusketa egingo dela, aditzera eman du. Jardunaldien tokia eta ostatu arazoak bideraturik daude eta egunei dagokienez, irailaren 26an, asteazkenarekin hasi, eta ostiralean Euskaltzaindiaren batzarre irekiarekin amaiera emango zaie. Behin-behineko egitaraua zabaldu da batzartuen artean.

**Eskuarteoak**

P. Salaburuk, gutun baten bidez, “*Bilbao* toponymoaz eritzi emaitea” izeneko izkribua salatu du. *Eusker*a aldizkarian agertutako lan honetan Euskaltzaindiak bere egunean Bilbo izenari buruz hartutako erabakia ezeztatzen dela eta, zergatik ez dion Euskaltzaindiak berak erantzun galderari, esaten du. Euskaltzaindiaren aldizkari ofizialean halako gauzak nola argitara daitezkeen, galdetzen du gero.

A. Irigoyen, lanaren egileak, eritzi pertsonalak berezi behar direla noski erantzun ofizialetatik, erantzun du. Bilbo hitz laburtua denez, berbeta arrunterako utzi behar dela, bere ustez.

*Eusker*a aldizkaria eramateko azpibatzorde bat izendatzea proposatu du E. Knörrek. Beste egun batean ikusiko dela arazoa, erantzun dio euskaltzainburuak. Irailean, behar bada.

Zarauzko Udalak eskatuta, “IX. Xabier Lizardi” Literatur lehiaketarako J.A. Mujika izendatua izan da Euskaltzaindiaren izenean epaimahaikide, eta J.A. Letamendia bere ordezkot.

Gipuzkoako Kutxak antolatzen duen “Orixe” itzulpen sariaren epaimahairako P. Altunaren izena eman da, J.M. Lekuonak ordezkotuko lukeelarik, hala behar izanez.

Georgiako Zientzi Akademiaren Linguistika Institutuak gonbidaturik Tbilisiera P. Goenagak eta E. Knörrek egin berri duten bidaiaren berri eman du Jagon sailburuak, bertan izandako harremanak azpimarratuz.

UNESCO-ren alfabetatze urtea dela eta, elkargo honek Euskaltzaindiarekin Baionan hasita Euskal Herri osoan egin gogo duen Erakusketaren berri eman du J. Haritschelharek.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

**BATZAR ARRUNTA**

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1990eko uztailaren 27an, arratsaldeko 4etan, egin du Euskaltzaindiak hileroko batzarre arrunta. Bertan egon dira: goizean batzartutako euskaltzainak, I. Sarasola ezik; eta bestalde, J.A. Arkotxa, J. Etxaide, J.G. Etxebarria, J.M. Etxebarria, J. Garmendia Larranaga, X. Kintana, J.M. Larrarte, eta R. de Rijk, urgazleak.

Rudolf de Rijk eta Armand de Coene bere emaztea agurtuz eman dio hasiera euskaltzainburuak batzarreari.

Euskaltzain osoen goizeko batzarrean erabilitako gai nagusien berri eman du idazkariak. Besteak beste, J. Hiriart-Urruty zenaren hutsunea betetzeko hautagaien aurkezpen epea bete dela, eta Beñat Oyharçabal izan dela proposatutako bakarra, aditzera eman du.

Hil berria den Bedita Larrakoetxea euskaltzain ohorezkoaren oroitzapen txostena irakurri du gero J.A. Arana Martija jaunak. 95 urte zituen uztailaren 16an zendutako misiolari eta euskaltzale laterandarrak.

Espainiako gerra aurrean, Oñatiko ikastetxean irakasle zelarik, *Euskal Esnalea*, *Jaungoiko zale* aldizkarietan eta *Euzkadi* egunkarian idazten zuen. Geroago, *Euzko gogoa*, *Karmel*, *Egan* eta beste batzutan. Prentsan argitaratzen zituen lanengatik “Kirikiño” saria irabazi zuen 1934an, eta *Binixako saleroslea* izeneko lanarekin beste sari bat jaso zuen Parisen.

Egindako itzulpenen artean Garcia Peña-ren *Patologia vegetal* eta Shakespea-  
reren antzerkiak azpimarra daitezke. Zenbait omenaldi jaso ondoren, Oñatin itzali da Benito Larrakoetxea, Zeanuriko semea. Goian bego.

Euskaltzainen hileroko txosten zerrendan A. Irigoyen jaunak “Hain egune-  
tan eta hain ordutan” gaiari buruz azterketa azaldu du. *Euskera*-n argitaratuko da lan hau bere zehaztasun guziekin.

P. Altunak, bere aldetik, Hernanin aurkitu ditu Larramendiri buruz berri jakingarriak, batzarraren amaieran aditzera eman duenez.

Eta besterik gabe amaitu da bilera.

*Euskaltzainburua*  
*Jean Haritschelhar*

*Idazkaria*  
*Jose M. Satrustegi*